

7.000. Irizar pb-a entregatu diogu Portugalgo Grupo Transdev-i

Ormaiztegin 2015eko maiatzaren 15ean

Irizarren Ormaiztegiko lantegian ospatutako ekitaldi batean entregatu zitzaion Transdev Portugalgo lantegi horretan bertan fabrikatutako pb autokar modelo arrakastatsuen 7.000. unitatea.

Irizar pb-aren 7.000. unitatea Transdev Portugalgo entregatutako 14 autokarreko lote batekoa da. Haietako 10 Mercedes OC500 E6 txasisaren gainean eta Irizar pb karrozeriarekin (12,92 metro luze eta 3.67 metro altu), beste 2 ere Mercedes OC500 E6 txasisaren gainean, baina 3 ardatzekin eta karrozeria pb1537 (14,98 metro luze eta 3,87 metro altu) eta 2 Volvo B11 E6 txasisarekin eta karrozeria pb1335. Autokar guztiak 53 edo 65 eserleku dituzte, luzeraren arabera; larruarekin tapizatuak, entxufeekin, oinak jartzekoekin, erdian besoak jartzekoekin, mahaitxo eta aldizkari ontziarekin eta aurrealdean helmuga adierazteko kartelarekin eta komunarekin.

Azken erosketa honekin Transdev Portugalgo Irizar markako 50 ibilgailu berri bereganatu ditu azken 3 urteetan, eta aurreko 10 urteetan erositako 150 ibilgailuak gehituz gero argi geratzen da bi enpresen arteko harreman estua eta Taldeak Irizarko karrozeriengan duen konfiantza.

Pb modeloko 7.000 unitate horiei Irizarren atzerriko lantegietan saldutako beste 3.000 unitate gehitu behar zaizkie. Australian, Brasilen, Hego Amerikako herrialdeetan eta Hegoafrikan saldu izan dira, azken horretan gehien.

Irizar pb 2011ean sortu zen eta konpainiako bandera ontzia da. Urte hauetan ohiko garraioko eta bereziko sektoreetan sendotuz joan da. Irizar pb diseinuaren, kalitatearen, segurtasunaren, fidagarritasunaren eta errentagarritasunaren sinonimo bihurtu da eta bidaiariak garraiatzeko premium merkatuan beste aukera batzuen gainetik dago.

Portugalen 1997an ezarri zen Transdev. Normetro kontsortzioko parte zen eta urte hartan Oportoko Metro sarea diseinatu, eraiki, erabili eta mantentzeko nazioarteko lehiaketa publikoa irabazi zuen. Gaur egun Transdev Portugalgo errepideko garraio sektorean erreferentzia nagusietakoa da. 2014an Transdev Portugalgo 108 milioi euroko negozio bolumena kudeatu zuen, 1.800 kolaboratzaile ditu eta 1.500 autobus inguruko flota.

2014an hiri arteko eta hiriko sareetan Transdev 22.000.000 bidaiari garraiatu zituen eta 75.073.000 kilometro egin zituen.

Bidaiariak taldeka garraiatzeko 12 enpresak osatzen dute eta baita citi express, Citizenn eta Citivisual markek ere. Parte-hartzea dute, halaber, RNE - Red Nacional de Expresos, RENEX - Red



Nacional de Transportes, eta Inters-en - InterNorte e InterCentro.

Frantzian sortu zen 1955ean eta jarduera bizia mantentzen du bidaiarien garraio publikoan; urtean 3.300 milioi bidaiariren joan-etorriez arduratzen da. Taldeak 48.000 ibilgailu baino gehiago ditu eta 13 garraio motatan aritzen denez operadore multimodaltzat jotzen da. Guztira Transdev-ek 95.000 kolaboratzaile ditu.

2013an Taldeak identitate berria hartu zuen Transdev markarentzat "Zugan inspiratutako mugikortasuna". 20 herrialdetan dago, 5 kontinenteetan, eta urtean gutxi gorabehera 7.900 milioi euro fakturatzen ditu.

Informazio gehiagorako:
Ana Eceiza
Emaila : aeceiza@irizar.com
Tel. : + 34 667181833